

Ikasleen pisuak

Josuk Amaiari nolakoa pisua duen komentatuko dio. Entzun elkarrizketaren lehen zatia eta aukeratu erantzun zuzena.

1. Josu nolako pisuan bizi da?

- a) Oso etxe ederra eta berria da.
- b) Etxe zaharra eta handia da: bost gela eder ditu.
- c) Etxe zaharra da, baina nahiko berria.

2. Josuren pisuan zenbat lagun bizi dira?

- a) Bost lagun bizi dira: Josu, hiru mutil eta neska bat.
- b) Lau lagun bizi dira: bi neska eta bi mutil.
- c) Bost lagun bizi dira: Josu, beste bi mutil eta bi neska.

ERANTZUNAK:

1. *Etxe zaharra eta handia da: bost gela eder ditu*
2. *Bost lagun bizi dira: Josu, beste bi mutil eta bi neska.*

Gure pisuan bai ondo

Pisuan ala erresidentzian, non hobeto? Ikusi berriro bideoa, eta lotu Amaiak eta Josuk aipatzen dituzten ezaugarriak eta tokiak.

	ERRESIDENTZIA (N)	IKASLEEN PISUA (N)
Garbitzailea dago		
Ez da betere garestia		
Ohea egin behar da		
Dena hurbil dago		
Ezin da parrandarik egin		
Alkohola debekatuta dago		

ERANTZUNAK:

Erresidentzia (n): Ohea egin behar da.
Ezin da parrandarik egin.
Alkohola debekatuta dago.

Ikasleen pisua (n): Garbitzailea dago.
Ez da batere garestia.
Dena hurbil dago.

Bideoaren transkripzioa

AMAIA.- Eta nolakoa da pisua?

JOSU.- Ba ikasleen pisu bat da. Etxea zaharra da, baina oso ondo dago. Eta handia da: bost gela eder ditu, egongela, sukaldea, bi komun... Eta sabaia altua da.

AMAIA.- Ederra ematen du, bai.

ETENA

JOSU.- Bost lagun bizi gara, baina datorren astean batek libre utziko du bere gela.

AMAIA.- Eta denak mutilak, ala mutilak eta neskak?

JOSU.- Ni, beste bi mutil eta bi neska, baina neska bat joan egingo da.

AMAIA.- Hara... Eta? Parranda asko egiten dituzue?

JOSU.- Eeeeeez! Bueeeeeeno, batzuk... Baina"oso gustura nago, hauek ere oso jatorrak dira"

AMAIA.- Txoraa! Ba... ez dakit. Horrela bat-batean...

JOSU.- Pentsatu, neska! Ez dugu koska egiten.

AMAIA.- Ondo, pentsatuko dut, proposamen polita da.

ETENA

JOSU.- Gainera, ez da garestia: 250 euro hileru, eta garbitzailea daukagu.

AMAIA.- Erresidentzian gehiago ordaintzen dut! Eta ohea egitea tokatzen zait!

JOSU.- Aizu, pisuan ere bai, e! Alferrontzi halakoa! Nahi baduzu, esango dizut nola egin!

AMAIA.- badakit! Aukera ona da, gainera, pisuan geratzen banaiz, denbora gehiago izango dut... gela txukuntzeko! Dena gertu dago eta!

JOSU.- Horixe, unibertsitatetik liburutegira joango gara, eta handik etxera salto batean.

AMAIA.- Ez da plan txarra! Baina pisuan erresidentzian bezala ez banago, bueltatu egingo naiz: han ez dut parrandarik egiten eta alkohola debekatuta dago.

JOSU.- Eta asko ikasten duzu, ba, badakit...

AMAIA.- Bai, bai.